

EUSKAL ORÍA

Berragarako Euskal-Eguin

SABOREN

re, euskaltasuna azaldu nai. Izan ginen Bergara'ko Euskal-Egunian, beste Euskal-Erriko euskaltzalekin bat eginkiz gure euskera maitia berpiztutzeo asmo aundi bat artu eta an erakutsi ziguten eran kementsu jarraitzeo.

Ekta aifi gauza zalla, gustiz erreza baizik; euskeraz beti mintzatza bakar bakarrak eskatzen salgu, nun begiratu gabe, leku guztitan, bai gure sendietan, etxartetan (kaletan) eta euskaldunak dabiltsan leku guztietan azaldu biaz gure euskaltzetasun aundia, beti euskeraz mintzatziak eta euzkotar jatorrak bezela ibiltzakien.

Bafia tamagaria da benetan, egun artan aifi euskaltzetasun auri nabaitu arren berialtu aztu egiten zayotela euskaltzale batzuei.

Ala ikusi ditugu, an Bergara'ko euskaltzale bezela ibili ziran batzuek, emen euskerantzako maitasun guxti azantzen dutela.

Eztu oyen biotzeta euskerak leku asko!

Nunbait lotzatu egiten, euskeraz itz-egiten. ¿Zer dala ta? ¿Ez alda gurria izkunta eder au? ¿Ez al da gure asab zuten eta guri erakutziziguten izkera garbia?

Lotzagarria da gure ele maitia orreala baztartu, ta atzerriko izkeren beren solasketak bai sendietan eta bai lagunakin erabiltzia.

Oien semieski eztute jakingo, noski, beren gurasuak lenengo ikasi zuen itz gozoa euskeraz esaten "jama".

Euskaldunak! Euzko-Abertzaletu gaitezten danok, gogoz da egitez; gure barrur asmoz suturik eta gure espaletan eta biotzean euskerak arturik betiko, guazken guztioi goyarginturik gure antzifinak edestia berri-

tzera.

Eta gure oroinmenean egon bedi beti, bira degun euskaltzetasuna.

"Euskaltzaleak" Batzordea! oar bat bear bearrakoak! Itzaltske Euskal-Erriko aibialtsa tximist-gurdietan ta bai ta besta leku askotan ere, iragarki batzuek: "EUSKALDUNAK! ITZ EGIN BETI EUSKERAZ" esanaz jartzear.

Orreala euskaltzetasuna beti gozoan eukuko dute euzkotar guztioiak, bai gaur egunian gaztelarrez mintzatzia andikitakusuna dala olozen duden neskatal arinak ere.

ELORDI

Iritzi berri gaiztoak!

"El Rincón" deritzan Jakintzari idazleak, "De la selva a la playa" izendatuta, izperringi ontan idatzi duana irakurrita, zenbaiten oraingo iritzi berri gaiztoak burura datorkit.

Berriak, alaxe dira beintzat gurutzat narru-gorri zaleak ondartzetako issaikeriatzaz duten iritzia; bafia Jaungoikoari eskerrak Bere argia bei degu oyen okerkeria ezagutzeko.

Eguzki ta aize artezko aitzakiak, bustiketako era berri izenak, gure ondartzetan iya estalki gabe dabiltsen basatiak, bai dirudi abere antzera dabiltsan ezkerro, abere izatea berentzat ontzat bear luteketa;

bafia ez nurbait uko egin nai Jauñak Bere maitasun aundiaz gizonari adimengabeko izakien gain eman dion adimendun izateari, ta bai dantzak, berak beren turrial sinistara ezin diotena, bestea zinista arazi ezinifik.

Ez omen da soin estaltze ez au bando gogo garbirgorik ezer ere; oiturearen oituraz, oben egitea galtzen duala; estutzearen ezkutuak nai loyak ernauit omen ditu berriz. Aitzaki polita beren zalekeria gaiztoak inofia ere ez estaltzeko!

Eta iritzi gaizto au, este oker au, da beren buruai zinista arazi ezin, eta bestea egotzi nai digutena.

Sarri, ardo asko edaten oitura da, gogorik ez daukazuten euskaldunak; utzi alde batera, nagitasun ori, auzi alperkeri ori, eta igo danak Uzturre mendira!

Euskalerrerengatik, zuen biotzean txinpart txiki bat daukazuten guztioi, igo egun ortan gure Uzturre maitera, eta an arkituko zerate, mendigoizalekin egizko euzkotarrekin. Mendigoizalek ez diranak ere, igo ditezela gure mendi, zar ortara, gure ametsa dalako, orrela mendigoizalearen jatortasuna, mendigoizalearen euskaltzetasuna zabaldu dedin otz zamar dauden biotz guztietara. Baldin gure amets ori, betetzen bida, gauza bat igarriko degu; otz zamarragoi zama, benetako euskaltzalegiñik jetxiko dala.

Euskaldunak, Uzturre'a dana!! Tolosa'tik.

Luzegi ez nuke egin nai, ene irakurle; ta jalen berri jakin nai badezu (erbestekua ba-zera), atoz, pozik artuko zaitugu-ta.

UZTURRE

ZUBIALDEKO

zipristin batzuk beren gogoak ezagun ezin ditzakelako

Ez da gure Jaungoikoa loi zale. Bere Agindua Garbitasuna da, eta Jaungoikoak beti dirau, betiko da-ta. Naiz ta gizon galduak, gordetzea beartua dagon Legea bateko besera itzuli nai.

Uste okerra, nayaren, grifa ta oarkabetasunaren ordoretzat irakasten digute; gure itxasuri txukunak loitzera etortzen diran gizagaldua ere au dute; beren grifa galduetzaz partu nai ez, zalekeri galduen atseginean bizi nai, bafia kistar onaren izenakin; eta emen dira maxlatzaile, geyegikeri abek dirala-ta txadonetan irakurten zayen gotzatziak jasan ezinik.

Ze pozik utziko luteken eliza! Bafia onaren artean azaldu nai, ez da ba ludi ontan kristautasuna aintzat notifa goratzen duanik ezer agertzen, eta kistaratasun beren basati izatea bat egin ezin. Emenik beren azkatasun loya, onbidetzat azaldu naya.

Aho ere, basotik ondartzara jetxi den Kirats zikina bertain geldituko balitz, gaitz erdi; goibel, aize otz eta ekaitzak bereala ondantuko bai luteke; bafia okerrena da ondartzetatik baserri ta mendi lauduetara ekingo diola gure Jaunak bere errukiz gaizkatzen ez bagaitu.

Beintzat, euskeraz ere entzuten degu: "Orain ez dago lengo konturik; geyegi narrugorritzen dala orain go jentea?, oitu ezkerro batere "mitarik" ez, berdin-berdin".

Iritzi berria, zoritzarrez euskeraz olozen eta aditzten dutenen gogotan ere leku egin nai duano.

TENE

Deba'tik.

Auda Euzkotarrak!

Mendigoizaleen eguna badator! Euzkotaren eguna badator! Euzkotar guztioiak, mendigoizale guztioiak, badakite, noiz eta nun dan aitatu degun egun ori.

Mendigoizaleak! — obetoago esana dago: "euzkotarrak", mendigoizale egizkia, benetako euzkotarra da! — etorriko dira danak, gure Uzturre mendi maite ortara.

Aitatu besterik ez degu egin, eta ura guztietatik, badatzkigu idatzik bikaflak. Batzuek txistulariak etorriko omen dira. Beste batzuek ez-pata-dantza izugarria ekarriko omen dute. Eta dan-danak zaletasun aundiarekin etorriko dirala diote. Mendigoizalearen euskaltzetasuna orre lakoia da!

Eta au ikusirikan gure biotzak lertu nayean daude. Gure izate guztia, dar-dar dago. Auxa da poza, nik orain dautakena. Gauza bat igarritet: Mendigoizaleak, maite ditula, gure izkuntza, gure oiturak, eta gure abenda zar-zarra; zar-zarra bai, bafian ez orregatikan bestiak beño makalagoa, indartsuagoa baizik: maite du bai, loretxuak udara beroan goizeko intza bafian geigo, arraltxoak, uda bafian geigo, amak... bera semetxoa bafian geigo, izan albaileke.

Mendigoizaleak! Euzkotarrak! alaitu zaitezte, postu zaitezte, baderot gure eguna, gure ametsa zarria, maitasun egizkia agertzeko eguna.

Goazen danak aldapa gora! eta iritxiko gera Uzturre mendira, Euskalerrak duan mendirik alaientakora.

Goazen burundara eta zalaparta aundiarekin! Gure atzetiak etorriko dira mendigoizaleak ez diranak ere.

Euskaldunak! mendizaleak etzerezten euskaldunak, mendirako gogorik ez daukazuten euskaldunak; utzi alde batera, nagitasun ori, auzi alperkeri ori, eta igo danak Uzturre mendira!

Euskalerrerengatik, zuen biotzean txinpart txiki bat daukazuten guztioi, igo egun ortan gure Uzturre maitera, eta an arkituko zerate, mendigoizalekin egizko euzkotarrekin. Mendigoizalek ez diranak ere, igo ditezela gure mendi, zar ortara, gure ametsa dalako, orrela mendigoizalearen jatortasuna, mendigoizalearen euskaltzetasuna zabaldu dedin otz zamar dauden biotz guztietara. Baldin gure amets ori, betetzen bida, gauza bat igarriko degu; otz zamarragoi zama, benetako euskaltzalegiñik jetxiko dala.

Euskaldunak, Uzturre'a dana!! Tolosa'tik.

Luzegi ez nuke egin nai, ene irakurle; ta jalen berri jakin nai badezu (erbestekua ba-zera), atoz, pozik artuko zaitugu-ta.

UZTURRE

ZUBIALDEKO

Elgoibar

Agur. — Aspaldit ez det idatzit EL DIA're, ainbat idazle daudelako ura onetan, ta gaferia... xar xamarrak ligeradeko izparringi gazte baten idazteko.

"Maitxo" idazle txukun ta argia, "erreuma" edo, Deba'ko ondartzera ederrian, luzitzen edo ikusi dute; onegatik ez du astirik.

"Agurtzane" berriz... oso arroturik dabil gizongai inguratutu duan ezkerro, (aplakatuko aiz, guk aña denborale igaro orduko)

Eskerrak "Ixaka"ri, bestela potx emenguak.

Bergara'ko jala. — Oso pozgarria aurtxoen jai eder, ta atseginingarria; "Luzear"ek zion bezela jai oye obeto egin biar ditugu, ni ere ortan nago.

Butrundara ta zalapartakin gauza on gutxi egin oia.

"Arantxa"ri. — Zu ezagutzeakin oso pozik nago, ta, batez ere zure lengo eguneko itzneurtu ayek txorragariak!

Oso maitekor etorri zera, "Arantxa" arreba maitea, Umeen lenak pozidaturik Zatozkit gaur gure artera.

Ai! zein egoki goratu dezun Bergara'ko aurtxoen lana, Ta txoraturik euki ginduan Aur euskaldunen eguna.

Bergara'ko aur egunera'ko arripidea. — "Mirenzu" ... 3'00
"Aberry" ... 1'00
Latxa'tar Kesare ... 1'00
Gabiondo'tar Agapita ... 1'00
Astilazaran'dar Jakinda ... 2'00
Larreategitar Nikola ... 2'50
Osoro'tar Nazario ... 2'00
Arriola'tar Baleri ... 1'00
Arrillaga'tar Antonio ... 5'00
Pezifia'tar Antonio ... 5'00
Albizu'tar Erasmo ... 2'00
Gabilondo'tar Piz ... 2'00
Arriola'tar Justo ... 2'00
Osoro'tar Pantzeska ... 2'50
Arriola'tar Modesto ... 1'00
Arriola'tar Mikel ... 1'50
Gorostiza'tar Gilvelma ... 1'00
Altuna'tar Paul ... 1'00
Ballejo'tar Demetir ... 1'00
Ubiria'tar Sebastian ... 5'00
Kintana'tar Manuel ... 1'00
Kintana'tar Jasinto ... 1'00
Murguruzia'tar Margarita ... 2'50
Arriola'tar Teodoro ... 2'00
Mugertza alargunak ... 4'00
Mujika'tar Jose ... 5'00
Osoro'tar Kasimiro ... 5'00
Ezenarro'tar Erramo ... 4'00
Opakua'tar Benin ... 1'00
Udalak ... 50'00

Guztira ... 118'00

Mutrikuko abeslariak. — Bergarakit etxeruntzian emen abestu zuten Mutrikuko abeslari txikiak. Oso txalotuak izandu ziran.

Zorionak Gaztelurrutia apalz lan-gilleari, ain talde bikaiña osatu dua-lako.

ABERRI

Eskontza. — Ostiralean ezkondu ziran emengo eliza nagusian gure adiskide diran Lekube'tar Iñaki ta Landaburu'tar Belentina. Espania ikustera urtenak dira serenarratzek. Zorionak eta amargabeak opa-dizkizutet bizimodu berriaren.

Astelen goizean txistu ta eskillotzak erri ontako jalen berri eman ziguten.

Goizeko zazpietan Sagario'ko Ama'ren elizan meza; ta meza onen ondoren emendik eliz nagusira ibil-deun edo prozezioa egin zan Sagario'ko Ama ermanaz.

Amarretan meza naguzia: Refice'ren meza ospatsua abestu zuten emengo abeslariak: ain gozo... ain egoki... Zorionak abeslari oiei, baita oien zuzendarierei, Itza'dia Aita Irazkiztegiak egin zuan.

Amabiak iritxi ziran. Eltzeak pil-pil zeuden eta emakumeak bazkarien zai, berak jarri zituzten mokarri gozoak janerazteko.

Arratsaldean bezperak; cen ondonen soñu ta dantza, pelota-partiduak eta ostiko-jokua, danetatzik ba-zan.

Orrelaxe bukatu zan egun au eta ondorengoa egunetan ba-zan zer ikusia gure txoko polit onten.

Luzegi ez nuke egin nai, ene irakurle; ta jalen berri jakin nai badezu (erbestekua ba-zera), atoz, pozik artuko zaitugu-ta.

UZTURRE

ZUBIALDEKO

VIDA RELIGIOSA

MARTES 16 DE SEPTIEMBRE

Santos de hoy:

Ss. Cornelio, p., Cipriano, ob., Abundio, pb., Eufemia, vg., Lucía, Sebastiana, Rogelio, Servideo, mrs.; Niniiano, ob.; Edita, vg.

Santos de mañana:

Los Llagas de San Francisco.— Santos Pedro de Arbués, Lamberto cbs., Justino, pb., Columba, vg., Floceo, niño, Adriana, Agatocila, mrs.

Término

SANTOS CORNELIO Y CIPRIANO

PAPAS Y MARTIRES

Cornelio fué romano y ejerció el sumo pontificado bajo los emperadores Galo y Volusiano. Combatió a Novaciano, primer antipapa. Trasladó de las catacumbas los cuerpos de los Apóstoles San Pedro y San Pablo, colocándolos respetuosamente en los lugares donde habían sufrido el martirio. Los emperadores los arrestaron, siendo decapitado en 293.

Cipriano era abogado en Cartago (Africa) cuando se convirtió al Cristianismo. Poco después fué elevado al sacerdocio y consagrado obispo de aquella misma ciudad "Superfluo fuera", dice San Jerónimo, hablar de su genio, cuando sus obras brillan más que el sol". Este ilustre Padre de la Iglesia latina, representa uno de los períodos más borascosos de la Iglesia africana. Sufrió el martirio cinco años después que San Cornelio, y el día en que se celebró en Roma la traslación de este santo papa.